

KEPA ENBEITAREN OLERKIA

Emen agertzen yaku muxikarra bigarren sariaz. Auxe da, urrean, arek argitaratu eban lenengo olerkia.

Nai det berba gitxitan biar au amaitu
jenteak errezago ein dalan aditu,
zer moduz egiten dan eguna amaitu
karabiñerueri ondo begiratu.

Goizean jagi eta lenengoko lana
ipintea soiñean jantzi eder bana,
gero soiñekoari tokaten yakona;
jira bat eiñ eurakaz, amaitu zan dana.

Itxas-aldian bada portu eskiñetan,
osterantzean barriz estaziñoetan,
pizka bat geldi badauz laster pasietan,
orrela bizi dira egun guztietan.

Etorriten danean portura ontzia
a errekestaten dauko biar nagusia;
baiña emon ezkeru ixillik saria,
libre itxiko deutse gauzari pasaia.

Ikusi ezketiño barriz euskaldunak
baserritik noizik beiñ etorten diranak,
eurai ipinten deutsez bekoki illunak
ezertako eztiran belarri motx-dunak.

Iñoz eztot ikusi belarri motx-dunik
gogotik biarrean ekiten deutsanik:
nai ta sabelerako ez euki zer janik,
ibilli gura dabe dotore zutunik.

Biar-modu batean eztauke paltarik;
—orren artean bada emazte bakorik?—
laster topauko dabe, ez artu bildurrik
mutil-zartuko dala karabiñerurik.

Gelenak dira eurak morrosko ederrak
txanka me, praka nasal, espalda bedarrak;
zutunik ibilteko eztira ain txarrak,
dotore ipiñirik surpeko bizarrak.

Artez daukie beti euren kontsentszla
eta ezer eztan lekuan eskua garbia;
orren bizimoduan ispillu argia,
iñok ikasi eztaian izaten nagia.

Arlo luzeegira egin naz ni eldu
orren bizimodua egiten azaldu;
birtuterik egundo eztabe zabaldu,
ta geiago esan barik bear dot Ixildu.

Irakurlea: Araiz Undabeitia Enbeita, Kepa Enbeitaren birloba -

Usparitxa, Muxika